

## pequeña historia del ajedrez



Uste orokorra da xakea Indian sortu zela, Ganges ibaiaren ertzean. Piezak ez ziren, zehazki, gaurkoak bezalakoak: elefanteak, zaldunak, gurdiak eta oinezko soldaduak ziren, Indiako armadako formazio tradizionalari jarraituz. Jokoa horrelako bi armada elkarren aurka jartzean zetzan: bakoitza errege baten eta laguntzaile edo jeneral baten agindupean zegoen (azken hori, askoz beranduago, erregina edo dama bihurtuko zen). Elezahar ospetsu batek dio brahman batek asmatu zuela xakea, erregea dibertitzeko. Hain pozik gelditu zen erregea, ezen brahmanari nahi zuena emango ziola agindu baitzion. Brahmanak –matematikari ona omen zen– itxuraz oso erraza zen zerbait eskatu zuen: gari-ale bat lehen taula-laukiagatik, bi bigarrenagatik, lau hirugarrenagatik, zortzi laugarrenagatik, eta abar, lauki bakoitzean aurrekoaren bikoitza eskatu zuen, hirurogeita laugarrenera heldu arte.

Gorteko jakintsuek kontuak atera zituzten, eta ikusi zuten planetako azalera halako hirurogeita hamabost erein beharko liratekeela hainbeste gari lortzeko: hemezortzi trilioi gari-ale baino gehiago ziren.

Hori guztia gure garaiko V. mendean gertatu zen, gutxi gorabehera. Ehun urte geroago, xakea Persiara heldu zen –egungo Iran–, eta handik arabiar mundu osoan zabaldu zen.

Xakeak zale ugari izan zituen arabiarren artean, hainbeste non *Mila gau eta bat gehiagoko* elezharretako askoren argumentu nagusia joko hori baita. Haiexek ekarri zuten IX. mende inguruan Europara, Espainian eta Italian barrena. Gero, Amerikara heldu zen.

Pertsonaia historiko asko izan ziren xakean adituak: santuak, aita santuak, erregeak eta enperadoreak, politikariak eta gerlariak, zientzialariak eta artistak; zerrenda amaigabea da.

